

**Apaizgaitegia**

Ik. Seminarioa.

**Aparteko adiskidantza**

Elkarteko bizitzan (kolegioan, \*komentuan, etab.) bizikide biren arteko adiskidetasunezko harreman iraunkor eta eksklusiboa izendatzen da horrela. Susmo txarrez ikusi izan dute elkartean aparteko adiskidantza; besteren artean, guztiekiko \*elkartasuna hausten omen duelako.

**Apezpikua**

Sin.: Gotzaina; Apaiz Nagusia

Episkopos grezierazko hitzetik dator: begirale esan nahi du jatorriz. Kristu-Elizetan \*ordenazio- eta apaizgo-gradurik nagusia da. Ordenazio-sakramentua eta apaizgo ministeriala ezagutzen ez dutenez, apezpikutzatza ere ez dute onartzen Eliza protestante eta erreformatu gehienek. Eskandinaviako \*Eliza lutertarrak eta \*haurride morabiarrenak, berriz, badituzte apezpikuak, baita AEBetako \*Eliza episkopaliano metodistak ere.

Apostoluen garaiko Elizan, kristau-elkartean antolamendu ezberdinaren arabera, apezpikuak eta \*presbiteroak funtzio bereetsua betetzen zuten. Apezpikuekin batera, berriz, \*diakonoak daude. Bigarren mendeen, eliz elkartaren eraenketak "monarkikoa" izatera jotzen du, eta orduan apezpikua nagusitzen da, bere inguruan eta menpean presbiteroak eta diakonoak dituela.

Apostoluen zuzeneko ondorengoak dira eta haiengandiko eskumenaren etengabeko jarraierari eusten diote, bigarren mendetik honera landuz datorren kristau-irakatsiaren arabera. Beraiek dute kristau-irakatsia emateko eta kristau-elkartea eraentzeko eskumen gorenaren.

Elizaren eskumenaren izaera monarkiko eta apezpikutarrari --episkopalianoak-- izaera presbiterotarra eta "errepublikanoa" --presbiterianoak-- kontrajarri dio Erreformatik sorturiko hainbat Elizak.

Bien arteko sistema-moduko bat izan nahi du kolegiozko eraenketak: apezpizpiku guztien kolegiozko eskumena irakasten eta apezpikuaren eta apaizen nolabaiteko kolegio-jokabidea eskatzen du horrek. Kolegialtasunaren printzipioak, irakasbide katolikoak esaten duenez, ez du sistema monarkikoa hausten, \*apezpiku-kolegioaren burutza eta jurisdikziozko lehentasuna \*aita santuari eza gutzen dioenez, eta apezpikua presbiteroen iturburua eta gainekoa dela eta apaiza haren ordezko dela irakasten duenez. Dena dela, kolegialtasunaren printzipio teologikoa eta

demokraziaren printzipio soziologikoa Elizaren eraenketa osora zabaltzen diren neurrian, horko agintaritzan hierarkikoa berorren zerbitzu-zentzu ministerial funtsezkoari hurbilagotuko zaiola uste izatekoa da.

Eliz unitate nagusiaren edo \*diozesiaren burua eta gidari izpirituala da apezpikua berez, diozesirik gabeko apezpikuak baldin badaude ere Eliza Katolikoan. Apaizgoaren betea duenez, berari dagokio bereziki apaizei edo presbiteroei eta beheragoko ministroei ordenazioko sakramentua ematea. Zuzenbide Kanonikoaren arabera, berriz, hainbat eginkizun ditu, batzutan apaizei eta beste \*ministroei delegatzen dizkienak.

Apezpikua bera, berriz, kontsakrazioaren bidez iristen da apezpiku izatera. Beste apezpikuren bati dagokio berria apezpikutzatza; eta normalean gutxienez beste bi apezpikuren laguntasuna izan ohi du. Apezpikugaiaren hautatzea eta izendatzea, berriz, aita santuak egiten du Eliza Katolikoan. Dena dela, horretarako sistema demokratikoa goen eta \*kristau-herriaren esku-hartze funtsezko eta handiagorearen eskabidea oso zabala da gaur. Apezpikuaren ministeritza ematea osotu gabe gelditzen da, teologiaren arabera, \*mandatu kanonikoa eman ez zaion bitartean: hau da, kargu jakin bat esleitu ez zaion bitartean apezpiku berriari.

Eliza Katolikoan zein mailatako eta nolako kargua betetzen duen kontu, apezpikua izan daiteke: aita santua (apezpiku-kolegio osoaren burua); \*kardinala (aita santua aukeratzeko eskubidea duena); metropolikoa edo \*artzapezpikua (eliz probintzia edo artxidiozesiaren burua); diozesiarra (diozesi arrunteko artzain nagusia); laguntzailea (diozesiarriari beronen eginkizunetan laguntzen diona, horren ondorengo izango ez bada ere). Apezpiku tituluduna da, halako diozesi historikoren baten titulua daramana, baina bertako benetako apezpikua izan gabe; apezpiku egoitzaadun edo diozesiduna da, berriz, bere diozesian egoitza eta ministeritza duena.

Ik. Hierarkia; Apezpiku-kolegioa; Eliza Katolikoa; Apaiza; Eliz probintzia.

Paulo Agirrebaltzategi

**Apezpiku sufragioduna**

Eliz probintziaren barrutian, metropolikoa ez, beste \*diozesietako apezpiku guztiak. Horrela deritzate, sinodo probintzian leant \*artzapezpikua hautatzean botua edo "sufragioa" emateko eskubidea zutelako.

Ik. Eliz probintzia; Metropolita.